<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Eibarren eta eskualdean kokatzekoak diren lehentasuneko sektoreak edo gaiak identifikatzea. – Marketing programa espezifiko ezartzea. – Kaptazioren gestio aktiboa egiteko programa lantzea		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Koordinatu inguruko lurzoru industrialaren proiektuekin eta garapen teknologikoarekin: proiektu induzitu berriak.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Ekonomia sarearen berrikuntza ekarriko duten azpiegitura berriak lantzeko beharrezkoa da aldi berean babes egitura bat osatzea estrategia espizifikoa bat sustatzeko; estrategia horrek lehentasuna emango die eskualdearentzat interes handien duten enpresei eta batez ere fakturazioa eta beharrezkoa den espazioaren neurriak harreman txikiagoa dutenei.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Ekintza honen helburuak ez ezartzeak ekarriko luke Eibarrek eta eskualdeak duen ahalmen teknologikoak maila berean ez garatzea, baina aldi berean, ekarriko luke eraginik gabeko industria eta enpresa eredu bat garatzea kontuan hartuta lurraldearen ezaugarriak eta lurzoruaren baliabideak.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Debegesa		<i>Gauzatzean</i> – Eskualdeko udalak. – Debegesa – Tekniker, CEI-Berrilan, ...
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA Sarbide azpiegituren eta lurzoru industrialaren proiektuak  OSAGARRITASUNA 4.2.3.,4.3.3.,1.1.1.,1.1.2., 1.3.3.,1.2.3.,1.3.2., 1.2.2.		
OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Ekintza jarraitua denboran, 5 urte bitartean eta arintasun handiarekin.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b> 5 urteko epea eman zaio, arintasun handiarekin. Kosteak 1.3.3. ekintzaren araberakoa.  BEHARRAK 10 - 15 milioi urteko.		
ITURRIAK – Eskualdeko Udalak. – Foru Aldundiak – Eusko Jaurlaritza		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Enpresa berriak sortzea edo ezartzea. – Eskualdeko enpresen fakturazio/enplegu indizea.		



**3. Helburua. Eibar hiria, kalitate handiko formazio-zentruzat eta zentru teknologikotzat hartzea.**

	<b>Lehentasun maila</b>
1. Injineritza Teknikoaren Zentrua hobetzea, mekanikaren espezializazioa indartuz eta espezialitate gehiagotara zabaltzea aztertuz. Lanbide Heziketa sendotzea, espezialitate eta modulo berriak sortuz.	II
2. Kirol Ikasketen Zentrua ezartzea, kirol desberdinei dagozkien titulazioak lortzeko.	I
3. Kalitateko formazio sistema sustatzea Eibarren, Tekniker eta oraingo azpiegituretik abiatuta (Injineritza Teknikoaren Eskola, Gestio Eskola, Marketing Eskolak). Hala behar izanez gero, prestigiodun titulu bat sortzea (masterra), ezagupen teoriko eta praktikoak lotuko dituena.	I

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Ingenieritza Teknikoaren Zentroa hobetzea, mekanikaren espezializazioa indartuz eta espezialitate gehiagotara zabaltzea aztertuz. Lanbide Heziketa sendontzea, espezialitate eta modulo berriak sortuz.		<b>Kodea: 4.3.1.</b> <b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa Erdi mailakoa ✓ Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Eibar formazio teknikorako zentro gisa indartzea da helburua, prestigiduna eta ikasleentzako erakargarria. Horretarako, mekanikaren espezialitatea indartzeaz gain, teknologia industrialaren eremuko beste zenbait espezialitate landu nahi dira, Eibar unibertsitate mailako zentro tekniko gisa sustatzeko. Lanbide Heziketaren alorrean ere horrelako zerbait egin beharko litzateke.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Eibarko hezkuntza teknikoaren sistema lantzeko laguntza berezia. – Zentrorako espezialitate berriak identifikatzea. – Espezialitate berriak ezartzea. – L.H.-n programa berriak ezartzea.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Unibertsitatea eta enpresaren arteko lankidetzarako programa sustatzea.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Kalitateko formaziorako zentru gisa duen funtzioa ekintza honetan oinarritzen da eta, beraz, burutzeak Eibarrek eskualde mailan formazio aldetik ere garrantzia izan dezan laguntzen du.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Eibarko Unibertsitatea ez bada eguneratzen eta modernizatzen, etorkizuna arriskuan jarriko da, Euskal Herriko beste unibertsitateen aldean ahulago azalduko baita.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Plan Estrategikoaren Batzorde Eragilea. – Eskualdeko sektore industrial eta teknologikoa – Eibarko I.T. zentrua.		<i>Gauzatzean</i> – Eusko Jaurlaritza : Hezkuntza.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA <span style="float: right;">OSAGARRITASUNA</span> <span style="float: right;">1.2.2.,1.2.4.,4.1.3. , 4.3.3.</span>		
OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Datozen urteetan jarraipen batekin burutu beharrekoa.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b> Hezkuntzaren aurrekontuak mantentzea eta garatzea. Eibarko Plan Estrategikotik gestiorako ez da finantziazio berezirik behar.		
BEHARRAK ez da finantziazio berezirik behar, hezkuntzaren ohiko aurrekontuak baizik.		ITURRIAK – Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza.
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Espezialitateen bilakaera. – Zentro bakoitzeko ikasleak : bilakaera.		



<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Kirol Ikasketen Zentroa ezartzea, kirol desberdinei dagozkien titulazioak lortzeko.		<b>Kodea: 4.3.2.</b>
		<b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa ✓ Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Hiriak dauzkan azpiegiturak baliatzea da helburua, legeak aurrakusten dituen titulazioak lortzeko eskolak emango dituen zentroa jartzeko, oraindik ez baitira E.A.E.n ematen.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Kirol titulazioak ezartzea (hezkuntza-espezialitateak). – Azpiegiturak lantzea edo egokitzea.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Hirian izango duen eragina aztertzea: aukera osagarriak...
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eskualde mailako hiriburu bilakatzea eta inguruarekiko eragina sustatuko luke ekintza honek, EAEko zentro bakarra izango bailitzateke.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Hirian jarduera berri bat lantzeko aukera galduko litzateke, Eibarrek dituen aukerak baliatu gabe, eta ez litzateke heziketa zentro gisa garatuko.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Kirol elkarteak – Eibarko Plan Estrategikoaren Batzorde Eragilea.		<i>Gauzatzean</i> – Eusko Jaurlaritza : hezkuntza / kultura. – Eibarko Udala. – Kirol Federazioak.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA <span style="float: right;">OSAGARRITASUNA</span>  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> 1 - 3 urte		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK Azpiegituren beharren arabera eta espezialitateen arabera zehaztu behar dira.		
		ITURRIAK – Eusko Jaurlaritza.
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Ezartzen diren espezialitateak.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b>		<b>Kodea: 4.3.3.</b>
Kalitateko formazio sistema sustatzea Eibarren, Tekniker eta oraingo azpiegituratik abiatuta (Ingenieritza Teknikoaren Eskola, Gestio Eskola, Marketing Eskolak). Hala behar izanez gero, prestigiodun titulu bat sortzea (masterra), ezagupen teoriko eta praktikoak lotuko dituena.		<b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa ✓ Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Hezkuntza eta teknologia zentroen presitigioa handitzea da ekintzaren helburuetako bat. Besteak beste, hau proposatzen da: zentroen arteko harremanak koordinatzeko eta handitzeko beharra, zentroen artean elkar laguntzeko eta osatzeko programa amankomunak sustatzea, eta ekintza berriak bultzatzea, bai zentroak bai hiritartasun teknikoaren funtzioa indartzeko.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Hezkuntza zentroentzat elkargune bat sortzea eskualdean. – Programa bat garatzea zentroen espezialitateak eta eragina sendotzeko. – Multzoari presitigioa emango dioten ekintza berriak sustatzea: master programa...		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Unibertsitate - Enpresa lankidetzaren programa sortzea.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eibarko eta Debe Beheko azpiegitura kalitatezko hezkuntza sistema koordinatu eta elkartuago bat sendotzeraino garatu behar da, Euskal Herriko gainerako eskualdeekiko duen garrantzia sendotuz.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Teknika eta teknologia hezkuntzarako eredu global baten ezean, Eibarrek ez ezik eskualde osoak galduko luke orain duen industria ospea, Euskal Herriko beste zentro batzuen aldean.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Ikastetxe tekniko eta teknologikoak.		<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Ikastetxe tekniko eta teknologikoak.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA OSAGARRITASUNA 4.3.1., 1.2.2.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Hiru edo lau urte.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK Ezarpenean zehaztu behar dira.  ITURRIAK – Zentro tekniko eta teknologikoen ohiko aurrekontua. – Ekimen Pribatua : laguntzaileak eta matrikulak.		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Dauden zentroetan prestatutako ikasleak. – Titulazio berriak sortzea.		

**4. Helburua. Eskualdeko hiriburutzat hartua izatea, Euskal Herrian eragin eta erakargarritasun handiagoa lortuz eta beste hiriekin lankidetzan.**

	<b>Lehentasun maila</b>
1. Eibartik hiri ertainen sarea sustatzea, Euskal Herriko hirien sarea indartzeko: Irun, Eibar, Durango, Arrasate...	III
2. Deba Beheko Arte Eszenikoen Zentroa sustatzea.	I
3. Ezaugarri beretsuak dituzten hiriekin batera lan egitea, enpresa-harremanetarako, hezkuntzarako, formaziorako, eta abarretarako loturak finkatuz.	II
4. Eskualdeko Sorkuntza Artistikoaren Zentroa sortzea.	II

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Eibartik hiri ertainen sarea sustatzea, Euskal Herriko hirien sarea indartzeko: Irun, Eibar, Durango, Arrasate, ...		<b>Kodea: 4.4.1.</b> <b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa Erdi mailakoa Behe mailakoa ✓
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Arazo urbanoak dituen hiri gisa identifikatu nahi da Eibar, eskualde buru den eta dituen azpiegitura beharrak lortzeko zailtasun handiak dituen neurrian, kontuan harturik betiere, hura dagoen lurraldean beste hiru hirigune handiei eman zaiela lehentasuna eta inguruan dinamika handiko udalerrri asko dituela. Testuinguru horretan Eibarrek bere burua sustatu eta agerian utzi beharra dauka bere arazoa, Euskal Herrian egoera berean dauden beste zenbait udalerrirekin batera.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Probintziako hiriburu ez diren Euskal Herriko beste hiri batzuekin topaketak egitea. Hiriek 15.000 biztanle baino gehiago izan behar dute. – Interes berdinak dituzten hiri sare bat eratzea: Euskal Herriko hiri ertainen lobbya.		<i>Zeharkako proiektuak:</i>
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eibarko arazoen soluzioa eta eskualdearen buruzagitza Eibarrek irabazi behar du, dituen aukerak Euskal Herri osoari zabalduz, Euskal Herriaren lurralde garapenean parte hartuz eta hausnarketa eta eragin foro berriak ezarriz.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Euskal Herrian hiri ertainen sarea oinarri harturik lurralde eredu bat ez izateak ez du aukerarik uzten lurraldea –Bilbo inguruan polarizatuagoa Donostia eta Gasteiz inguruan baino– garatzeko.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala		<i>Gauzatzean</i> – Sarea eratzen duten hirien udalak.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA OSAGARRITASUNA 4.4.3.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Ekintza intentsiboa 2 urtean, gero jarraitzeko.		
<b>8. FINANTZIAZIOA:</b> Ekintza bera garatzeko ez da finantziazio espezifikorik behar; gero, elkarlanean aritzeko, baliteke behar izatea.  BEHARRAK Ez du behar espezifikorik		
ITURRIAK --		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Interes komuneko talde gisa garaturiko ekintzak.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Deba Beheko Arte Eszenikoen Zentroa sustatzea.		<b>Kodea: 4.4.2.</b>
		<b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Dantza, antzerkia, zinema eta abar ikasteko zentro bat izan nahi du, sormena lantzeko aukera berriak garatzeko, Eibarren eta eskualdean betidanik egon den tradizioetik abiatuta. Horrek guztiak zentro espezializatu baten beharra du, eskualdearen kultur hiriburua.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Arte Eszenikoen Zentroa sortzea azpiegitura egokian. – Prestakuntzarako programa integrala garatzea.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Eskualdeko hiriburua kulturala bultzatzea.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eibarren hiriburutasuna eskualde osoari zerbitzuak eskaintzeko moduko proiektu berritan oinarri harturik bultzatu behar da, Eibar bere eskualde eta inguruneko zerbitzu hiri handia izan dadin.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Kultur esparruko jarduerak sendotu ahal izateko moduko azpiegiturarik ez izatea da gaur egungo premia nagusietako bat, eta premia hori bere horretan geratuko litzateke ez balitzaio hemen aurkezten den ekintza honi helduko. Hutsune hori dela eta Eibarrek ez du aukerarik ez ekipamendua ez antzerki tradizioa (Antzerki Jardunaldiak) berritzeko.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala		<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Debegesa – Foru Aldundia – Lekuko eta eskualdeko kultur erakundeak.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA <span style="float: right;">OSAGARRITASUNA</span> <span style="float: right;">4.4.4.,3.3.2.</span>  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Bi edo hiru urte.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK <span style="float: right;">ITURRIAK</span> Ezarpenean zehazteko. <span style="float: right;">– Espainiako Gobernua – Eibarko Udala – Gipuzkoako Foru Aldundia – Europako Batasuna</span>		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Zentroak garatzeko jarduerak. – Programetan prestatutako pertsonak.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Elkarlanean hastea Eibarrenak bezalako ezaugarriak dituzten hiriekin, enpresa eta hezkiketa alorreko harremanak ezarriz.		<b>Kodea: 4.4.3.</b> <b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa Erdi mailakoa ✓ Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Eibarrek bere ingurunera zabalduko beharko luke, bera bezalako ezaugarriak edota antzeko interesak dituzten hirietara, lankidetzak programak sustatzeko, esperientziak trukatzeko, esperimentazio transnasionaleko proiektu piloak bultzatzeko eta abar.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Ekintza honetarako interesgarriak izan daitezkeen hirien azterketa eta identifikazioa. – Lankidetzarako kudeaketa: proiektu interesgarriak identifikatzea, lankidetzak akordioak lortzea.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Hiriri beste hiri batzuetara zabaltzeko ideia helaraztea: hedatze programak.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Antzeko ezaugarriak dituzten edo duten jarduteko modua inportatzeko modukoa duten hiriekin lankidetzan aritzeak agerian uzten du Eibarrek aldatzeko eta inguruaz harago zabaltzeko gogoak duela. Horrek guztiak, noski, ekintzaren jauzi kualitatiboa dela eta, eskualde buruzagitzaren faktorea sendotzen du.		
<b>4 BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Eibar kanpora zabaldu gabe geratzea da hain zuzen hiri zaharraren adierazpen nagusietako bat, eta hain zuzen ere horixe da gainditu nahi dena. Hiri batekin edo bat baino gehiagorekin ez erlazionatzea eta beraz hiri horiekin programa komunak ez bideratzea da jarrera lokalistak iraunarazten dituenak.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Debegesa		<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Debegesa – Enpresa eta erakunde ekonomiko eta teknologikoak.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA OSAGARRITASUNA 4.4.1.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Bi edo hiru urte.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b> Ez da lankidetzak programa jakinetarako funtsak erabiltzea kontuan hartzen.  BEHARRAK – Lauzprobost milioi programan.		
ITURRIAK – Europako Erkidegoa: Anaitasun eta lankidetzak programak.		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Eibarrekin lankidetzak programak dituzten hiriak.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Arte sorkuntzarako zentro bat sortzea eskualdean.		<b>Kodea: 4.4.4.</b>
		<b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa Erdi mailakoa ✓ Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Eskualdea sormenezko jarduerak lantzeko hornitzea: margolaritza, argazkigintza, eskultura, ...		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Kultur proiektu bat prestatzea: hornidura eta jardueren programa. – Zentroa sortzeko bultzada.	<i>Zeharkako proiektuak:</i>	
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eibarren sormen lana bultzatzeko jarduerak eragitea hiriaren eskualde buruzagitza areagotzen du, Eibarrek zerbitzu hiri gisa duen lekua hobetuz.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Ekintza hau burutu gabe geratuko balitz Eibarrek aukera handiak galduko lituzke eskualde buruzagitza lortzeko eta aldi berean eskualde mailako beste ekipamendu berri batzuk sustatuko lituzke.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Lekuko kultur erakundeak	<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Gipuzkoa Foru Aldundia – Debegesa	
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA OSAGARRITASUNA 4.4.2., 3.3.3., 3.3.6.		
OINARRIZKO KOMUNIKAZIO EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> 2 edo 3 urte.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK Ezarpenean zehazteko.		
ITURRIAK – Eibarko Udala – Gipuzkoako Foru Aldundia – Europako Batasuna – Espainiako Gobernu		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Zentroak lantzeko jarduerak. – Programetan parte hartuko duten pertsonak.		

**5. Helburua. Eskualdea eremu funtzional gisa indartuko duten ekintzak sustatzea.**

	<b>Lehentasun maila</b>
1. Eskualdeko proiektu interesgarriari laguntza berezia ematea.	II
2. Eskualde mailako kooperazioa sustatzea, Deba Behean hiria eraberritzeko eta etxebizitzak birgaitzeko dauden arazoan aurrean.	III
3. Presio-lobby bat sortzea, oraingo lobby-en arabera.	I

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Eskualdeko proiektu interesgarrirei laguntza berezia ematea.		<b>Kodea: 4.5.1.</b>
		<b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa Erdi mailakoa ✓ Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Eibarko buruzagitzan parte hartzea da helburua, eskualderako interes berezia duten proiektuak bultzatzen eta betearazten. Deba Beheko Estrategia Plana eta Eibarko Estrategia Planerako Batzorde Eragilea izan beharko lukete erreferentzia markoa.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Proiektu katalogo bat prestatzea, Eibarko Estrategia Planaren barruan daudenez gainera. – Proiektuak betearazteko laguntza eskualdeko Plan Estrategikoaren bitartez.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Eskualdeko udalekin eta erakundeekin koordinatzea.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eibarko garapenak orobat eskatzen du halako eskualde dinamismo bat lurralde osoan proiektu estrategikoak bultzatu ahal izateko. Eta horrela lortuko du Eibarrek bere buruzagitza bultzatzea, ez bakarrik proiektu horiek aurrera ateratzeko duen premiagatik, baita laguntzaren beharra dagoelako proiektu horiek betetzeko.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Eibarrek eskualderako interesgarri diren proiektuetan ez parte hartzeak ikuspegi orokorraren falta adieraziko luke, gehiegizko lokalismoa, alegia, Eibarko strategiaren kalterako. Baina batez ere hau esan nahiko luke, ez lukeela eskualde buru gisa arituko, eta gaur egungo ahultasunak areagotu besterik ez liratekeela egingo.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Estrategia Planerako Batzorde Eragilea.		<i>Gauzatzean</i> – Estrategia Planerako Batzorde Eragilea.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA <span style="float: right;">OSAGARRITASUNA</span>  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Estrategia Plana indarrean dagoen bitartean betearazteko ekintza.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK <span style="float: right;">ITURRIAK</span> Ez du behar espezifikorik.		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Eskualdean bultzatutako proiektuak.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Eskualde mailako lankidetzaren sustatzea, Deba Behean hiria eraberritzeko eta etxebizitzak birgaitzeko dauden arazoaren aurrean.		<b>Kodea: 4.5.2.</b> <b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa Erdi mailakoa Behe mailakoa ✓
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Hiria eraberritzeko eta etxebizitzaren birgaitzeko lanei dagokienez, ekintza honek eskualde osoa du helburu. Horrek esan nahi du programa bat bultzatuko dela eskualde osoarako, kanpoan finantziario aukera gehiago izateko eta arazo komun bat identitate komuneko lurralde batera globalizatzeko. Horrek ez du zertan eragotzi behar udalerrri bakoitzak jardueraren espezifikoa izatea bere estrategiaren barruan.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Eskualdean jardunbide komunak burutzeko programa berezia sustatzea. – Lehentasuna duten jardunbideak identifikatzea.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Gestioari buruzko komunikaziorako eta laguntzarako programa, aplikatuko diren fondoak lortzeko.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eskualdearen garapena, neurri handi batean, jardunbide globalerako programak jarraipen batekin burutzearen baitan dago. Horretarako, Eibarrek interes orokorreko ekintza hauen aintzindari izan behar du, eskualde mailako hiriburu izatearen garrantzia dela eta.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Programa hauetan lankidetzarik ezak, fondoak lortzeko zailtasunak ekartzen ditu, Euskal Herriko beste lurraldeen aldean, eta gainera, batasunaren ikuspuntua galtzen da antzeko arazoaren aurrean.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Debegesa		<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Debegesa
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA OSAGARRITASUNA 1.1.3.,1.2.1.,2.1.2.,2.3.3.,2.1.3.,2.1.4.,2.1.5.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRUKUSPENA:</b> Datozen 5 urteetan jarraipen batekin burutu beharrekoa.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK Ez da fondo berezirik behar.		
ITURRIAK --		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> Eskualde mailako lankidetzaren programak.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Presio-lobby bat sortzea, oraingo lobby-en arabera.		<b>Kodea: 4.5.3.</b>
		<b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa ✓ Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Eibarko Plan Estrategikoak egiteak berak epe horretan Batzorde Eragilea presio-lobby edo talde bilakatzeko aukera ematen du, Planaren ezarpenerako eta ondorengo bilakaeretarako.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Eibarko Plan Estrategikoaren Batzorde Eragilea presio-lobby edo talde bilakatzeara.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Helburu berdinak edo osagarriak dituzten eskualdeko beste taldeen laguntza eta koordinazioa.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Hirian lobby bat sortuz gero, aintzindaritasuna sustatuko da, hiriaren estrategiaren helburuen arabera, etorkizunean garapena sustatu ahal izateko.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Eibarko erakundearen Plan Estrategikoaren aldeko buruzagitasunik ezak eta lankidetzaren egitura baten bidez adierazten den lankidetzaren publiko eta pribatuaren ezak, hiriaren estrategia ahultzen du helburuak lortzea zailtzen duelako etorkizuneko eragiteko konfiantza galduz.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Plan Estrategikoaren Batzorde Eragilea.		<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Plan Estrategikoaren Batzorde Eragilea
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA  OSAGARRITASUNA Plan Estrategikoa bere osotasunean.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Jarraipen batekin burutu beharreko ekintza.		
– <b>8. FINANTZIAZIOA</b> Eibarko Plan Estrategikoaren sustapen ekintzak egiteko (proiektuak zuzenean asumitu gabe), Udaletik abiatutako egiturarekin: H.A.P.O.		
<b>BEHARRAK</b> – 10 - 15 milioi / lehen urtean. – 5 - 10 milioi / ondorengo urteetan.		<b>ITURRIAK</b> – Eibarko Batzorde Eragileko erakundeak – Bazkide berriak. – Kanpoko laguntzaileak.
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Eibarko Batzorde Eragilea mantentzea. – Ekintzaren jardura orokorren finantziarioa.		

**6. Helburua. Hiriaren informazioaren komunikazioa sustatzea, suspertzeko eta eraberritzeko estrategien arabera, hiriari irudi berri bat ematearren.**

	<b>Lehentasun maila</b>
1. Hiriaren Komunikazio Plan bat lantzea, Eibarren dinamizazioan oinarrituta, Plan Estrategikoa gauzatzea indartuko duena.	I
2. Deba Beheko eskualdeak kanpoaldera duen irudia sustatzea, informazio eta komunikaziorako ekintza berezien bidez.	I
3. Hiriko bide seinaleak hobetzea eta berritzea, bereziki Eibarren bizi ez direnentzat interesgarriak diren ekipamenduak topatzeko.	I
4. Hirian egiten diren jarduera eta emanaldiei buruz informazio gehiago ematea.	I

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Hiriaren komunikazio Plan bat lantzea, Eibarren dinamizazioan oinarrituta, Plan Estrategikoa gauzatzea indartuko duena.		<b>Kodea: 4.6.1.</b> <b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa ✓ Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Eibarko Plan Estrategikoa ezartzen laguntzeko eta hiriaren irudia hobetzeko Komunikazio Plan bat definituko eta landuko da, hiria identifikatzeko elementu berrien bidez.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Komunikazio Planaren edukiak diseinatzea. – Komunikaziorako euskarri dokumentalak edo irudizkoak lantzea. – Komunikazio Plana gauzatzea.		<i>Zeharkako proiektuak:</i> – Hiriaren irudi korporatiboa identifikatzea.
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Plan Estrategikoa bera egitean, komunikaziorako estrategia ere sartzen da planaren ezarpena indartzeko, baina, Eibarren kasuan, hiriaren strategiak dimentsio sakonagoa du, eta horretarako barne komunikaziorako osagarri sendo bat behar da bereziki, hiriaren eraberritzea errazteko.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Eibarko erakunde guztien partaidetza behar da Plan Estrategikoa gauzatzeko, eta ekintza hau gauzatu ez balitz, hiritarraren laguntza lortzea zaila izango litzateke, horretarako konfiantza eta indarra eman behar zaiolarik estrategia berari.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Eibarko Plan Estrategikoaren Batzorde Eragilean dauden erakundeak.		<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Eibarko Plan Estrategikoaren Batzorde Eragilea.
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA Plan Estrategikoaren sustapenaren eta ezarpenaren erritmoa  OSAGARRITASUNA 4.6.2.,4.6.3.,4.6.4.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Bi urtetan intentsiboki eta gero jarraipen batekin.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b> Ezarpenaren etapan zehazteko zain.  BEHARRAK – 15 - 20 milioi lehen bi urteetan. – Ondorengo epe batean zehazteko.		
ITURRIAK – Eibarko Udala – Erakunde lokalen eta supralokalen laguntza.		
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Komunikaziorako Planean egindako inbertsioa. – Jardunbide espezifikoak. – Hiritarren balorazioa.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Deba Beheko eskualdeak kanpoaldera duen irudia sustatzea, informazio eta komunikaziorako ekintza berezien bidez.		<b>Kodea: 4.6.2.</b> <b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa ✓ Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Eibarko strategiaren ardatza Deba Beheko eskualde osoko hiriburu izatea da. Zentzu horretan, informazio eta komunikazioa indartzeak eta kanpoalderako irudiak lehentasun handia izan behar dute batasun eta aktibazio irudia indartzen duten ekintza guztien artean.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Lehentasuneko ekintzen programa definitzea eta eskualdearekin irizpideak batzea. – Komunikaziorako ekintza koordinatuak burutzea eskualdean.	<i>Zeharkako proiektuak:</i>	
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Eskualde mailako interesa duten proiektuetatik abiatuta, Eibarrek informaziorako programa bat sustatu beharko du eskualdearen irudia hobetzeko Eibarrek duen garrantzia azpimarratuz.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Lurralde batasuna oraindik ahula izanik, eskualde mailako zentzua ez izateak eskualdeko proiektuak indarra galduko luke eta, aldi berean, eskualdeko gainontzeko herrien gaitzespena ekarriko luke.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Debegesa	<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Debegesa	
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA <span style="float: right;">OSAGARRITASUNA</span> 4.6.1.		
OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Denboran jarraipen betekin ezarri behar da.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK Ezarpenean zehazteko.	ITURRIAK – Debegesa – Eibarko Udala – Proiektu bakoitzerako laguntzaileak.	
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Eibartik egindako jardunbideak. – Debegesak sustaturiko programak.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b>		<b>Kodea: 4.6.3.</b>
Hiriko bide-seinaleak hobetzea eta berritzea, bereziki Eibarren bizi ez direnentzat interesgarriak diren ekipamenduak topatu ahal izateko.		<b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa ✓ Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Bide seinale egokiak jartzea hiriaren aldaketaz jabetzeko elementu nagusietako bat da, bai eta hiritarrarentzat eta kanpotarrarentzat erakargarriagoa izateko ere. Erabilera edo interes publikoa duten ekipamenduak identifikatzeko hobetu beharko dira seinaleak eta "hobekuntza bisualaren" programa batean sartu beharko da asmoa.		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Bide-seinaleak berritzeko eredua diseinatzea: finkoa eta higikorra. – Lehentasuna duten ekipamenduak identifikatzea. – Hiriko sarbideetako bide-seinaleak definitzea eta lantzea.		<i>Zeharkako proiektuak:</i>
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Bide seinaleek hiri bat eraberritzeak eskatzen duenaren arabera izan behar dute, bai eta azpiegitura eta ekipamendu berrien arabera ere, irisgarritasuna eta erabilgarritasuna errazteko. Berezko berrikuntza elementuak eduki beharko ditu horretarako.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ::</b> Ekintza hau ez bada gauzatzen, hiriaren gabeziak bat mantenduko da, eta hiritarrak ekipamendu berriak erabiltzea eta hiriaren eraberritze jardunbideak ezagutzea galeraziko du.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala		<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Eskualdeko erakundeak (koordinazioa).
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA OSAGARRITASUNA 4.6.4. ,4.5.1.,1.4.1., 2.3.1., 2.3.4.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> 2 – 3 urtetan gauzatu beharreko ekintza.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK Ezarpenean zehaztu beharrekoak.		<b>ITURRIAK</b> – Eibarko Udala – Gipuzkoako Foru Aldundia.
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Egindako inbertsioa, urteroko bilakaera. – Kanpotarrei egindako inkesta; haien ebaluaketa.		

<b>EKINTZA ESTRATEGIKOAREN IZENDAPENA:</b> Hirian egiten diren jarduera eta ikuskizunei buruz informazio gehiago ematea.		<b>Kodea: 4.6.4.</b> <b>LEHENTASUN MAILA:</b> Goi mailakoa ✓ Erdi mailakoa Behe mailakoa
<b>1. EKINTZA ESTRATEGIKOAREN ERAGINA:</b> Ekintzaren helburua da aisialdirako jarduera hobek eta ugariagoak eskaintzea, espazio berriak sortuko direnez, horrela, kirol, kultura, formazio, sorkuntza, lekarte, aisialdi, etab.-en alorrean aukera gehiago eskainiz. Herri mailan informazioa ematea sustatu behar da, baina baita ere eskualde mailan (konpententziarik ez duen jarduerentzat).		
<b>2. PROIEKTU PARTZIALAK:</b> <i>Proiektu zuzenak:</i> – Gaur egungo informazioari dagokion egoera aztertzea. – Kudeaketa hobetzea: informazioa lortzea, zabalkundea, finantziarioa... – Informatzeko modu berriak diseinatzea: hirian informazio-puntuak ezartzea...	<i>Zeharkako proiektuak:</i>	
<b>3. HELBURUAREKIKO HARREMANA</b> Hiritarrei jarduera edo ikuskizun ludiko-kulturalen berri ematea behar beharrezko elementua da hirigunetan. Eibarren kasuan faktore hau sustatu beharra dago egungo irudia hobetzeko, ez baita oso erakargarria eta lehiakorra, aisialdirako jardueretan.		
<b>4. BALIZKO ONDORIO NEGATIBOAK EKINTZA ESTRATEGIKOA BURUTUKO EZ BALITZ:</b> Interes publikoko jarduera edo ikuskizunei buruzko informazioa hiritarrei ez zabaltzea, lehiakortasunaren alorreko gabezia da eta hiriburutzat hartzeko behar duen garrantzia galtzen da.		
<b>5. ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK:</b> <i>Sustapenean</i> – Eibarko Udala – Kultur erakundeak, ...	<i>Gauzatzean</i> – Eibarko Udala – Kultur erakundeak, ... – Jarduerentzako enpresa laguntzaileak.	
<b>6. BESTE EKINTZEKIKO HARREMANA:</b>  MENPEKOTASUNA OSAGARRITASUNA 4.6.3.  OINARRIZKO KOMUNIKAZIO-EKINTZEN BEHARRA: BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>		
<b>7. EKINTZA BURUTZEKO EPEAREN AURRIKUSPENA:</b> Denboran jarraipen batekin egin beharreko ekintza.		
<b>8. FINANTZIAZIOA</b>  BEHARRAK Ezarpenean zehazteko.	ITURRIAK – Eibarko Udala – Publizitate-sponsorrak.	
<b>9. EBALUAKETARAKO PARAMETROAK:</b> – Informaziorako euskarri espezifikoak. – Hiritarraren iritzia balorazioa.		

### 3. PLAN ESTRATEGIKOA GAUZATZEKO ANTOLAKETA

Eibarko Plan Estrategikoa, lehenago esandakoari jarraiki, ekintza estrategiko guztiek osatzen dute, eta, Planaren eremu estrategiko orokorraren barruan duten lekua, lehentasuna eta elkarrekiko harremana lehenago azaldu dira.

Faktore horiek guztiek Planaren exekuzio planean eragin handia dute. Puntu honetan, gogoan izan behar da orain arte egin den ahaleginak helburu garbi bat duela: Plan honen exekuzioa ahalbidetzea.

Ahalegin hori, ordea, alferrikakoa izango litzateke Ekintza-Plan gisa hartuko ez balitz, **epeei dagokienean ahaleginak ekintza gutxi batzuetan bilduz, ekintza guztiak epe ertain-luzean gauzatu ahal izateko.**

Hiru ardatzen arabera planteatu behar da Eibarko Plan Estrategikoa. Horietako bi, "Edukiak eta Lehentasunak", Eragile partehartzaileek erabaki dituzte. Hirugarrena, berriz, **Planaren exekuzioaren arrakastarako dimentsio nagusiari** dagokio: Eragile partehartzaileen definizioa.

Orain hasiko den etapa hau, Eibarko Plan Estrategikoan onartu diren proiektuak sustatzeko antolaketaren metodologiari dagokio. Hala eta guztiz ere, ez dira nahastu behar ezarpenerako antolaketa eta ezarpena bera, zeren ezarpena eragileen dinamikaren baitan eta Planaren barruan edo kanpoan dauden erakundeen baitan baitago; horrela, ezarpenerako izendatzen diren organoen ardura izango da datozen urteetan Eibarren burutu beharreko jarduerak Planaren helburuekin bat egin dezatela, ekintzak gauzatzea erraztuz eta arinduz.

Beraz, etapa honetan, definitu diren edukiekin batera, **parte hartuko duten Eragileen** lana erantsi behar da, eta horregatik erabili da partaidetza zabaleko metodologia.

Gogora dezagun, beraz, Plan Estrategikoa proiektu bateratu bat dela, Eibarko eragile nagusiek egingarri eta gustagarri iritzi ziotena, eta parte hartuko duten erakunde gehienen adostasuna lortu duena. Horrek zera esan nahi du:

a) **Eibarren eboluzioa eta Plan estrategikoan identifikatu den etorkizun eredia bat etortzean datza Planaren arrakasta.**

Eboluzio hori Planaren jardunbideen helburu eta proiektuak banan bana burutzea baino garrantzitsuagoa da. Udallerriaren dinamismoak, epe ertainean helburu eta proiektu desberdinak berriro programatzea dakar.

Planaren exekuzioan aurrera egiteak berak, lehentasunak aldaraziko ditu, helburuak modu koherentean eta orekatuan lortzeko.

b) Planaren antolatzaileen aurrekontua ez da helburuak burutzeko, baizik eta horien sustapenerako. Zati bat, parte hartuko duten eragile desberdinei dagokie, eta horiek sustatu, koordinatu eta ebaluatu behar ditu Planak, eragileek Eibarko Plan Estrategikoaren helburuak gauzatzeko hartuko duten konpromezuaren alorrean. Baina beste zati handi bat hiriz kanpoko eragileen erabakin baitan dago. Horiei begira, Planak, **bertako eragileen presioa antolatu** behar du, helburu horiek lortzeko, nola gestio zehatzen bidez, hala Eibarko Plan Estrategikoaren Zabalkunde Plan baten bitartez.

- c) Kontuan hartu behar da, halaber, Planaren prozesua luzea dela (10 urte). Zentzu horretan, helburu eta proiektuak ez dira 3 edo 5 urte baino lehenago gauzatuko, nahiz eta epe laburragoan egiteko tentazioa izan. Planaren arrakasta progresiboa da; alegia, udalerrriak normaltasunez hartuko du, ez baita aldaketa handirik izango. Baina, horretarako, Sustapena asko landu behar da datozen bi urteotan.
- d) Antolatzaileek Planaren ezarpenaren egoera-txostenak idatziko dituzte eta, horien bidez, proiektuak martxan jartzeko arazo handirik ez duten eragileei "presio egin" ahal izango zaie eta "konpromezua hartuarazi". "Puntu beltzen" eboluzioak ez du esan nahi Planak ez duela funtzionatzen, baizik eta, hain zuzen, udalerrriaren eboluzioa eta erakunde partehartzaileek diseinatu zuten etorkizunerako proiektua bat etortzea lortzen ari dela.
- e) Gogoan izan behar da Plana udalerriko eragile guztien ardura dela, eta horietako bakoitzaren ardura-maila proiektu bakoitzaren barruan zehaztu da. Eibarko Udala Planaren sustatzailea izan da baina hau ez da udal mailako plana. Udaletxeak, beste edozein eragile bezala, Plan Estrategikoaren irizpideen eta helburuen arabera jardun behar du, eta kompetentzia mailagatik, udalari dagozkion proiektuak sustatu behar ditu.

Horrela, bada, etapa berri baten hasiera da hau, behin Plan Estrategikoaren edukiak onartzen direnean, eta beraz, ezarpenaren antolaketa ordenatu beharra dago, ondoko helburuekin:

- Planean parte hartuko duten erakundeek koordinatzea.
- Udalerritik kanpo burutuko diren ekintzak sustatzea.
- Planaren Egituraren jardunbide kolektiboari esker ez bada, gauzatuko ez diren ekintzak sustatzea.
- Ekintzarako organo ahalik eta operatiboenak egituratzea.

Jarraian, Planaren ezarpen faserako irizpide metodologikoak eta antolaketarako irizpideak azalduko ditugu:

1. **Sustapenerako** egitura operatibo berri bat antolatu behar da ondoko xedearekin:
  - Plan Estrategikoa gauzatzeko gestio antolatua, bereziki lehentasun handien duten ekintzena edo ekintza nagusiena.
2. Partaidetza-egitura mantendu behar da —Batzorde Eragilea— Planaren beraren filosofia mantentzeko formula gisa (ahalegin bateratua), Planaren ezarpenaren azterketan, ebaluaketan eta orientazioan parte hartuz.
3. Planaren ezarpenerako laguntza lortzeko prozesuari hasiera eman behar zaio, Zabalkunde Plan baten bitartez, hiriaz kanpoko jarrerak hobetzeko, Planaren helburuekiko eragin erabakiorra izan dezaketen eragile publiko eta pribatuen aurrean.

Antolaketarako oinarritzko eskema horretatik abiatuta, esan beharra dago, hurrengo etapa batean garatu behar diren funtzio nagusiak ondoren adierazitakoak direla:

### **3.1. Sustapenerako Egitura operatiboa**

Lehenago esan bezala, Plan Estrategikoa sustatuko duen egituraren eginbeharra, Planaren proiektu eta helburu guzti-guztiak gauzatzea izango da. Beraz, jardunbide koordinatu baten bitartez, diseinu, gestio eta ebaluaketa lan eraginkor bat burutuko da, eta, horretarako, lan-antolaketa teknikoa behar da, honela osatzen delarik:

#### **SUSTAPENERAKO TALDEAK**

Ekintza osagarri bat edo gehiago gauzatzeko, zuzenean parte hartuko duten erakunde batez edo batzuez osatuak egongo dira.

Behar adina Talde osatuko dira, ondoko irizpideen arabera:

- Parte hartuko duten erakunde multzo berari dagozkion proiektu osagarriak sustapenerako talde berean sartzea.
- Talde hauek, Planaren Garapenak proiektu nagusitzat hartzen dituen proiektuak bakarrik sustatuko dituzte, lehentasun irizpide malguak barne.
- Sustapenerako Talde bakoitzak Presidente bat izango du, eta Planaren Batzorde Eragileko kideen artean izendatuko dute.
- Batzorde Eragileak erabakiko du Talde bakoitza zenbat denborarako osatuko den, sustatu beharreko proiektuei hasiera eman arte, gutxienez.

Egitura operatibo honek euskarri tekniko eta logistiko egokia behar ditu, eta, zentzu horretan, antolaketaren ardura Plan Estrategikoaren Zuzendari Teknikoak hartu behar duela iruditzen zaigu; Zuzendariak, bere aldetik, antolaketarako bitarteko teknikoak behar ditu Prozesuen Zuzendaritza eta Animazio lanak burutzeko.

Horren arabera, Ezarpenaren lehen etapan (sustapenaren fasean), Planaren Zuzendaritza Teknikoa osatzen duten eginbehar zehatzak ondokoak dira:

- Prozesuaren antolaketa metodologikoa.
- Proiektuak definitzeko euskarri teknikoa, proiektu horiek modu egokian burutzeko aholkularitza teknikoa eta egoeraren azterketa tekniko edo azterketa espezifikoak egitea.

- Prozesuaren egoera ebaluatzeko txostenak egitea, Plan Estrategikoan erabaki ahalmena duten organoek onar ditzaten: urteroko txostenak eta prozesuaren jarraipena sei hilabetean behin.
- Behar adina gestio egitea Planaz kanpoko eragileek parte har dezaten: Administrazio Publikoa, Ekimen Pribatua eta Zabalkunderako eta Komunikaziorako jarduerak.
- Finantziaketarako beharrak definitzeko laguntza teknikoa eta fondoak lortzeko gestioa: Europako Batasuna, Administrazio Zentralaren eta Autonomikoaren Programak eta inbertsio pribatuak lortzea.
- Erdi mailako edo behe mailako lehentasuna duten ekintza estrategikoak ebaluatzeko txostenak egitea, hala behar izanez gero, Planaren Sustapenerako programan sartu ahal izateko.

### **3.2. Planaren Egitura partehartzailea: Organo Eragileak**

Planaren ezarpen garaian, eta, batez ere, sustapenaren fasean, –lehen bi urteetan– oso garrantzitsua da Batzorde Eragilearen jarduera mantentzea:

- Ezarpen hobea lortu ahal izateko, erakunde bakoitzaren konpromezua mantenduz.
- Ekintzak ebaluatu ahal izateko eta behar diren erabakiak hartu ahal izateko, estrategiak hobeto betetzearren.
- "Presio Taldea"ren jarduera mantendu ahal izateko, hiriaz kanpoko eragileen aurrean.
- Ekintza estrategikoetan behar adina aldaketa onartzeko: ekintzak berriro aztertzea, berriak sartzea, hala behar izanez gero Plana berriro aztertzea... (urteroko ebaluaketa txostena).

### **3.3. Plan Estrategikoaren Zabalkunde eta Komunikaziorako Plana**

Planaren estrategiak gauzatzeko laguntza lortzeko ekintzen oinarritzko elementu gisa, Plan Espezifikoko bat diseinatu da eta Eibarren posizioa hobetzeko beharren arabera aplikatu behar da, Plan Estrategikoaren proiektu bakoitzean eragina izan dezaken edozein erabakiren aurrean.

Zabalkunderako eta Komunikaziorako Plan hau, ekintzak zehazten dituen txostenean sartua dago eta gauzatu beharreko jarduera nagusiak jasotzen ditu, bai udalerrian bertan, ezagutarazteko eta bertako eragileak mugi daitezen, bai eta kanpoan ere, ekintza estrategikoak hobeto gauzatu ahal izateko.